

## KONTROL MOZIOA

### **DBUSEN MARKESINETAKO PUBLIZITATEAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK DIRELA ETA,**

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udaltzatzen Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatzen azter dadin. Mozioa 2019ko azaroaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Uztailean, Promedios Taldeko PM TRANS EUROPE S. L. U. enpresari esleitu dio Dbusek hiriko markesinen kudeatze integrala. Kontratuak 15 urteko iraupena izango du eta bere barruan sartu da, besteren artean, publizitatearen ustiapena. Garai berean, Donostiako Bagera elkarteak aztertu zuen, Donostiako erdialdeko zenbait kale nagusitan, erakunde publiko eta pribatuen publizitatea, DBusen markesinetan. Emaitzak erakutsi zuen nagusiki gaztelaniaz jartzen direla publizitate horiek: gaztelaniaz % 51,85, euskaraz % 22,3, ele bietan % 12,9

Horren harira egindako galderari erantzunez, udal gobernuak adierazi zuen publizitate espazio hori kudeatzeko hizkuntza baldintzak emakida kontratuaren agirian daudela jasota. Erantzunean zehaztu zenez, kontratu hori 15 urterako sinatu da, eta baldintza agiri horiek ezartzen dute euskararen presentzia orokorra handitu egin beharko dela, pixkanaka: lehen bosturtekoan, % 20 izango omen da "gutxi gorabeherako" helburua; bigarren bosturtekoan, % 30; eta kontratuaren hirugarren bosturtekoan, % 50. Administrazio publikoen publizitateak ele bietan egon behar omen du.

Erabaki guztiz okerra iruditzen zaigu hain epe luzea behar izatea, ezartzen den publizitatea EAeko bi hizkuntza ofizialetan egongo dela bermatzeko. Erabakia ez dator bat euskararen ezagutzak egindako aurrerapenarekin, ez da eragingarria; areago, erabaki horrek ez du euskararen aurrerabidean batere laguntzen, euskalduntzen ari diren donostiar gazteenei zeharka bidaltzen dien mezua gaiztoa baita. Hamar urte luze beharko direnez iragarki horiek euskaraz ere egon daitezzen, gaur egun hamar urteko haurra denak 20 urte izan arte ez ditu ikusiko iragarki horiek euskaraz. Bitartean, normaltasunetik kanpo dagoen hizkuntza gisa agertuko zaio euskara, salbuespen moduko zerbaiten antzera.

Euskararen normalizazioan egindako ahaleginei esker, dagoeneko profesional euskaldun ugari ditugu, iragarki horiek euskaraz ere idazteko gai badirenak. Areago, gertatuko balitz ere enpresa horiek profesional aski gaiturik ez izatea, itzulpengintzan adituak eta iaioak diren profesional eta zerbitzuak badira, zorionez. Beraz, ez dugu justifikatua ikusten, inolaz ere, hizkuntza baldintzen progresio motel hori.

